

**nura**

gizarte elkarteak 

San Francisco Hiribidea 47, Behea. 20400 Tolosa

943-576937/ 600-849249

**ARRISKU EGOERAN DAUDEN GAZTE ETA ADINGABEEN ZUZENDURIKO  
KALE HEZIKETA ESKU HARTZE EGITARAUAREN LABURPENA**

# nura

gizarte elkartea 

San Francisco Hiribidea 47, Behea. 20400 Tolosa

943-576937/ 600-849249

## 0.- AURKIBIDEA

---

1.- ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

---

2.- EGITARAUAREN AURKEZPENA

---

3.- PROPOSAMEN METODOLOGIKOA

---

4.- PROGRAMAREN HELBURUAK

---

# nura

gizarte elkarte



San Francisco Hiribidea 47, Behea. 20400 Tolosa

943-576937/ 600-849249

## 1.- ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

Nur-ek sogdianoeraz (Samarkandako antzinako hizkuntza irani-pertsiarra ) argiaren jainkosa esan nahi du. Sinbolo moduan, guztiz zuria den txoritxo liluragarri bat bezala irudikatzen da. Hain da zuria, itsutu egiten duela, baina, ikustea lortzen denean, aldaketa handi eta baikorren iragarle da.

**NURA GIZARTE ELKARTEA**, juridikoki Asoziazio moduan eraturiko irabazi-asmorik gabeko erakunde bat gara.

Gizarte gatazka eta zailtasun egoeran dauden pertsonekin konpromisoa duen gizarte entitate independente garen neurrian, gure **HELBURUA**, Administrazioaren eta Gipuzkoako Entitate eta Profesionalen aholkularitza, kudeaketa eta proiektu giza hezitzailetan erreferente laguntzaile izatea da.

Proiektuen garapenerako, NURA-tik eskaintzen dugun balio garrantzitsuena, haiek gauzatzen dituzten profesionalak gara.

Hainbat arlotan heziak gara, Gizarte Hezkuntzan, Gizarte Laguntzan, Psikologian, Enpresaritzan, Familia Terapian, Superbisioan, Aholkularitzan,...halaber, Giza Heziketa eskuhartzean, bakarkako, taldeko eta komunitate arloko ikasketa eta aldaketa prozesuetan, eta profesional eta erakundeen laguntzan esperientzia dugu.

Honetaz gain, bide profesional luzea duten, eta hainbat aktibitate alorretan espezializaturik dauden profesionalen osaturiko sostengu-talde baten lankidetzara daukagu.

## 2.- EGITARAUAREN AURKEZPENA

Hemen aurkezten den programak, sena **hezitzaile, integratzaile eta gizarteratzailea** du nagusiki. Gure ustetan, lan egiten dugun pertsonetikiko gure esku-hartzearen jarrera, ezin da ulertu pertsona hauek tratu zailekoak eta arriskutsuak izatera iritsi daitezkeen gizabanako isolatuak bezala kontsideratzearen ikuspuntutik. Pertsona hauek, euren behar eta eskubideak dituzten, baina, agian hauek gauzatzeko aukera asko izan ez dituzten hiritarrak bezala ulertzen ditugu, harreman arazoak edota beste gizarte testuinguru batzuekin harremanetan jartzeko arazoak dituztenak. Eraikitzen ari diren eta aldaketa eta ikaste prozesuan dauden pertsonak diren neurrian, norberaren prozesua bizitzen, gaitasunak garatzen eta gizarte testuinguruan integrazio maila sakonagoa lortzen lagunduko dieten bidaia-kideen beharra dute, guztiok bezala, baina kasu honetan profesionalak, kasu askotan, sare naturalik ez bai dute.

Programa hau, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Adingabe eta Nerabeen Babeserako Sistemaren barruan kokatzen da, Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak alorrean. Bizizikloaren aldi kritikoenetarikoa batetan, **nerabezaroan**, dauden pertsonen zuzendua dago. Nerabezaroa, berau bizi duten gazteentzat da bereziki kritikoa eta gatazkatsua, baina baita, beste neurri batean, euren guraso eta heziketa erreferente ezberdinentzat ere. Bizitzaren une honetan bereziki da garrantzitsua nerabeek heziketa erreferentzien sostengua jasotzea, eta are gehiago, euren gertuko gizarteratze-inguruneak, arazo ezberdinak medio, ardura hori hartzen ez badu. Azken kasu honetan, eta 1998/04/20ko aurreko eskubide eta arretarako 1/1998 Legeari jarraituz, Administrazioak hartuko luke behatzen diren gizarte beharrak bermatzeko ardura, kasuan kasuko egokiak diren zerbitzu eta programen esku-hartzeak bultzatuz.

## 3. PROPOSAMEN METODOLOGIKOA

Nahiz eta gure esku-hartzeak hezkuntza garapenaren inguruan eguneroko bizitzan sor daitezkeen hainbat egoera konkretuentzako tokia uzten duen testuingurune zabal batean gauzatzen diren, esku-hartze guzti hauek beti egongo dira zentzu osoagoa emango dien esparru zabalago baterantz zuzenduak. **Hau honela izanik, honako oinarritzko ildoetan sostengatuko dira gure esku-hartzeak:**

### 3.1. GURE BALOREAK

**ERRESPETUA.** Geure esku-hartzearen hartzailerik diren pertsonen kultur eta gizarte aniztasuna eta lan egiten dugun herrietan giza hezkuntza arloan gurekin harremanetan dauden profesionalen lan

eredu desberdinak onartuz. Euren behar eta erritmoetara egokituz eta, bai programak, bai gure esku-hartze moduak, baimentzen dituen espazioetara bakarrik iritsiaz.

**PARTEHARTZEA.** Proiektu batetan parte hartzen duten alderdi guztien ideia eta ekintza guztiak kontutan hartuz. Programa aberastu dezaketen komunitateko elementu guztien parte-hartzea erraztuz eta lan egiten dugun familia, talde eta pertsonak beraien herrian parte-hartzea bultzatuz.

**SORMENA.** Geure bezeroentzako garaturiko proiektuen bidez irtenbide berritzaileak ezarriz eta, aldaketa pertsonal eta komunitarioak, sormenaren ezinbestekotasuna helaraziz.

**GARDENTASUNA.** Barne eta kanpo kontrol zehatz baten bidetik eta eremu legalen barnean, zerbaitetan balioa erantsi diezaiokegun proiektuak soilik kudeatuz. Kongruenteak izanik kontratatu gaituen entitatearekin, udaletxearekin, eta programaren bidez gurekin harremanetan jartzen diren pertsonen geure aditzera emanez.

**KALITATEA.** Geure bezeroek esku-hartzean parte hartzen duten alderdi guztien esfortzua behar dutela kontutan hartuz, eta Ongizate Indibidual eta Komunitarioaren printzipioan oinarrituz, geure esku-hartzeei protokolo bat ezartzen diegu eta ebaluaketa jarraikor bat egiten dugu.

**BANAKOARI, TALDEARI ETA KOMUNITATEARI ZUZENDURIKO ARRETA.** Beharrezkoak dituzten proiektuak diseinatu eta garatu asmoz, hots, euren bizitzetara eta herrietako gertakarietara egokitzen direnak, buruz buru egiten dugu lan protagonistekin (BPH, TPH eta PHK barnekoak) (\*), geure egiturak euren beharretara moldatuz.

(\*) Heziketa Proiektuak: Banakakoak, Taldekoak eta Komunitarioak.

## 3.2. GEURE OINARRI METODOLOGIKOAK

### **GUZTIZ GIZA HEZITZAILEA DEN ESKUHARTZEA DUGU OINARRI**

Programaren berezko nortasun sozial eta pedagogiko hezitzailea batzen dituen esparrutzat hartzen dugu ekintza giza hezitzailea. Ekintza mota honek, programaren parte izango diren BPH guztiak garapen pertsonalerantz eta sozializaziorantz bideratzeaz gain, programa hau herrietan garatu dadin ezinbestekoak diren zenbait elementu komunitarioen garapenerantz ere eramango gaitu.

### **ESKUHARTZEAREN EZINBESTEKO SOSTENGUA, HARREMAN HEZITZAILEA DELA USTE DUGU**

Hau da gure ustetan, edozein heziketa-prozesuan, oinarrizko tresna. Garrantzi berezia ematen zaio harreman zuzenari, eta kontutan hartzen da, une oro, esku-hartze prozesuan sorturiko

harreman guneak ezinbesteko oinarriak izango direla programaren garapenerako. Esku-hartzearen protagonistekin harremanetan jarri eta dituzten beharrak ezagutzeko garaian, euren espazio edota guneetara hurbiltzeak garrantzi handia izango du.

## **ESKUHARTZEAREN ERALDAKETA GAITASUNEAN SINISTEN DUGU**

Ikasketa prozesua praktikarekin eta praktikan egitea potentziatuko da, gure proiektuen partaide direnen ezagupenen aktibazioa eta gaitasunen ernatzea sustatu nahian, irmoki sinisten baitugu euren gaitasunetan.

Emaitza iraunkorrak emango dituen esku-hartzean sinisten dugu, ahal izan ezkerro, auto-kudeatzaileak diren emaitzak, gure esku-hartzeak dirauen epetik haratago doazenak, eta, ondorio biderkatzaile baten laguntzaz, gizarte sarea sortu eta antolatuz, gizarte nahiz banakako eraldaketak indartzen lagunduko dutenak.

### **3.3. MAILA EZBERDINETAN EMANIKO ESKUHARTZEA**

#### **MAILA INDIBIDUALEAN**

Gazteek pertsona bezala gara dezaketenarekin zerikusia duten **Banakako Proiektu Hezitzaileak** (BPH) garatzen, esparru ezberdinak aintzat hartuta: pertsonalak, familiakoak, eskolakoak eta taldekoak.

#### **TALDE MAILAN**

Talde osoaren eta taldeko kide bakoitzaren prozesu giza hezitzaileak aintzat hartuko dituen **Talde Proiektu Hezitzaileak** (TPH) abiarazten. Taldearentzat elkargune osasuntsu eta ahal-bideratzaileak sortzeko aukerak bilatuz, euren dinamika eta ohituretan eragin eta komunitatean parte-hartzea, bai eta, eguneroko errealitatearen aldaketa bultzatuz.

#### **MAILA KOMUNITARIOAN**

Bai BPH eta TPH-ak, bai komunitateko beste elementu batzuk, hartuko dituen **Proiektu Hezitzaile Komunitarioak** (PHK) kudeatzen. Integrazio eta erantzunkidetasun zereginetan, komunitate osoari garapen bideak eskainiko dizkioten proiektuak eta integrazioa bultzatuko dutenak bere esanahi zabalenean.

## 3.4. EKINTZA ESPARRU BAT MANTENTZEA BAIMENTZEN DIGUTEN EREDU TEORIKOAK

### **IKUMOLDE SISTEMIKO KOMUNITARIOA**

Komunitatea, elkar menpekoak diren elementu ezberdinez osaturiko sistema elkarlotua bezala ulertzen da. Gerturatuko garen taldeak edo gizabanakoak elementu horietako bat izango dira, beraz, besteen beharra izango dute eta esparru komunitarioaren barne diren beste elementuekin erlazionatuko dira.

Komunitateko kide bakoitzaren jarrera ez dela estimulu indibidual jakin baten aurrean emaniko erantzuna soilik ulertzen da, baizik eta, komunitatearen historia osoaren aurrean emanikoa, sistemako kide guztiek ezagutzen dituzten jardun-arau eta seinale orokorrak dituen komunitateen aurrean emanikoa.

Kontutan hartzen da beraz, gizabanakoa, kasu honetan gazteak, komunitarioa osatzen duen horren parte direla eta dauden zailtasun egoeran egonik ere, ezin direla inola ere baztertu,

Komunitatetik esku-hartzea, erantzunkidetasun ildotik esku-hartzea dela uste da, eta honek, elkarbizitza egiten den komunitateari, duen **erantzukizun-hezitzailea** itzultzea suposatzen du.

### **IKUSMOLADE HUMANISTA**

Pertsonaren giza egoerarekin zerikusia duen alor ororen alde apustu eginez. Ardura izan eta pertsonari bere beharrak itzuli eta integratzen saiatuz, sentsazioak, gaitasunak, sentimendu eta emozioak, bere gorputza, gogamena, intuizioa, ametsak. Errealitatearekiko duen hautematea eta bere inguruko munduarekiko duen elkarreragina kontutan hartzen saiatuaz.

Gizabanako bakoitza baldintzarik gabe errespetatuz, egoerak aurre auzipetu gabe eta aurretiazko estandarrak ezarri gabe. Hau da, ulertu ezin ditugun jokamolde eta ekintzatatik, konpartitzen ez ditugun bizitza-balioetatik, ezezagunak zaizkigun kultura zein arrazetatik haratago joanez, pertsona denaren horretan zentratuaz eta, justifikatzen ez ezik, onartzen saiatuaz. Laburbilduaz, eta orain arte aipaturikoa borobilduz, giza potentzialtasunean eta pertsonen, aurrera egin, heldutasunera iritsi, aldatu eta hobetzeko duten gaitasunean sinetsiz.

### **IKUSMOLDE KONSTRUKTIBISTA**

Honako ideia mantenduaz: Gizabanakoa, bai portaeraren ikuspegi kognitibo eta sozialetan, bai afektiboetan, ez da bizi duen ingurunearen produktu hutsa, ezta ere, bere barne nahien emaitza soilik, baizik eta, bi faktore hauen arteko elkarreraginez egiten den eguneroko norberaren eraiketa bat. Ondorioz, kontutan hartzen da, ezagutza ez dela errealitatearen kopia bat, baizik eta, jadanik badituen eta bere ingurunetik jaso dituen eskemetan oinarrituaz, egiten den gizakiaren eraiketa prozesua.

## **EGUNEROTASUNEAN EMATEN DEN PEDAGOGIA**

Lan egiten den pertsona, familia edo taldearen egunerokotasunari ematen zaio garrantzia. Euren errutina eta ohiturak, gune giza hezitzailetzat eta aurrerapenatarako aukera gisara ulertzen dira, eraldaketa-gaitasun handia duten aldaketa txiki eta ez-erasokorrek, pixkanaka sartuaz.

### **3.5. KONPARTITZEN DITUGUN ETA GUZTIZ GEUREAK EGITEN DITUGUN AGIRI PROFESIONALAK**

**GIZARTE-HEZITZAILEAREN DEFINIZIOA (ASEDES-ek EGINA).** Lanbide-identifikazioaren funtsezko elementu bezala, zeinetan oinarritzen den esku-hartzea.

**GIZARTE HEZITZAILEAREN EGINKUN ETA BETEBEHARREN KATALOGOA, FUNTZIONAMENDU ESPARRU BEZALA (ASEDES-ek EGINA).** Honen gain sostengatzen da programaren garapena, kasuan kasuko aukerak zabalduz edota mugatuz.

**GIZARTE HEZKUNTZAREN KODE DEONTOLOGIKOA.** Programaren garapenaren zehar egiten diren esku-hartze guztien ekintza eta hausnarketa oinarri bezala.

**“GIZARTE ZERBITZUETATIK ADINGABE ETA GAZTEEI ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO EGITARAUAREN PROGRAMA EREDUA ETA PLANGINTZA SISTEMA”.** GIPUZKOAKO HEZIKETA KONPENTSATORIOKO ETA PRESTAKUNTZA OKUPAZIONALERAKO PARTZUERGOA. Hau erreferentzi teoriko eta metodologikoa bezala hartu eta Tolosako testuingurura oinarrituz. Baita, Partzuergoko koordinatzailearekin aurrera eramandako koordinazioetan laguntza teknikoa bezala erabiliz.

### **3.6. LAN TALDEA**

**GIZARTE ZEBITZUEN SAILAREN LAN ESTILO ETA FILOSOFIA:** Bai programa, eta bai hezitzaileen lantaldea, ezarriko diren Testuinguru Instituzionalera egokitu behar direla uste dugu. Bertako lan metodologia eta antolakuntza sistema kontutan hartu beharko dute, helburu komun bat duen talde handiago baten parte izango dira, nahiz eta funtzio eta betebeharrak ezberdinak eduki. Helburu komun hori Sailak beregan duen gizarte lana aurrera eramateko lan modu eta filosofian oinarrituko da.

**HEZITZAILE TALDEA:** Arreta, gainbegiratzea eta laguntza profesionala oinarritzko elementua da hezitzaileek beren betebeharrak ahalik eta hoberen aurrera eraman ditzaten eta bere lanean hobekuntza jarraikorra eman dadin. Berau garrantzitsua da bai esku-hartzearen hezitzaileek eta bai profesionalak beraiek beharrezko laguntza jaso dezaten. Hau bera beste gizarte agenteei egokitu beharko litzateke.



Lan egiten dugun gazte eta familien beharrak artatzen dituzten hezitzaile guztiak, koordinazioa eta ikuspegi bateratua oinarritzat dituen lan-estiloa gauzatzuz.

## 3.7. ETENGABEKO HOBKUNTZAREN ASMOA

**NURAREN KALITATE PROGRAMAREN GARAPENEAN** gauzaten dena, bai entitate bera, bai garatzen dituen programak, etengabeko hobekuntzarantz bideratuz.

## 5. PROGRAMAREN HELBURUAK

### 5.1 ESKUHARTZE GIZA HEZITZAILEAREN PROGRAMA-MARKOAREN HELBURUA

**ESKUHARTZE GIZA HEZITZAILEAREN PROGRAMAREN HELBURUA, GIZARTE BAZTERTZE ARRISKUAN DAUDEN HAUR ETA GAZTEAK TESTUINGURU GIZARTERATZAILIETAN BARNERATZEA DA**

Bide honetan, eta integrazio kontzeptua bere osotasun osoan garatu nahian, bi helburu orokor bilatzen ditu Programak:

**A.1. TESTUINGURUNE NORMALIZATU ETA EGOKITU EZBERDINETAN, EZAGUTZA, GAITASUN, JARRERA ETA INTERES, OROKOR NAHIZ ESPEZIFIKOAK, GARATZEA, OROKORTZEA ETA TRANSFERITZEA.**

**A.2. TESTUINGURUNE NORMALIZATU ETA EGOKITUETAN PARTE HARTZEA**

Gure ustetan, suertatzen diren zailtasunak ez dira gazteek testuingurune edo baliabide normalizatu eta egokituetan parte hartzen ez dutelako soilik ematen. Izan ere, askotan, gazteek parte hartzen dutenean ere, ez dituzte gizarteratze positiboa erraztu dezaketen ezagutza, gaitasun, jarrera eta interesak garatzen lagunduko dieten rolak bereganatzen. Ondorioz, askotan testuingurune edo baliabide hauetan parte-hartzeari uzten diote, edota baztertuak izaten dira.

Gazteak testuingurune edo baliabide normalizatuetan parte-hartzea ez da nahikoa gure ustetan, hauetan euren burua modu positiboan garatzea ezinbesteko baldintza dela uste dugu. Beraz, integrazio hitza erabiltzen dugunean honetaz ari gara: gizarteratze positiboa bermatuko duen eta testuingurune edo baliabide normalizatuetan ezagutza, gaitasun, jarrera eta interesen garapea bultzatuko duten rolak aurrera eramateko aukera izatea.